



2022-11-2ko Udalbatzarra

1. 2022ko irailaren 26an eta urriaren 13an egindako bilkurei dagozkion aktazirriborroa onartzea.

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 14 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (6).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: 6 - EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

2. Alkatetzak emandako ebazpenen berri ematea.

Udalkideak jakinaren gainean geratu dira.

3. AZAROAREN 25ERAKO ADIERAZPENA, 2022KO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA DELA ETA

Pleno Municipal 2-11-2022

1. Aprobación del borrador de acta correspondiente a la sesión de 26 de septiembre y 13 de octubre de 2022.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 14 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (6).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: 6 - EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

2. Dación de cuentas de resoluciones de Alcaldía.

Los miembros de la Corporación se dan por enterados.

3. DECLARACIÓN PARA EL 25N, DÍA POR LA ELIMINACIÓN DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES 2022



Sexu-jazarpena eta emakumeen aurkako beste sexu-indarkeria mota batzuk espazio publikoetan.

Azaroaren 25ean emakumeen beraien eskubidea aldarrikatu nahi dugu, espazio publikoa berdintasun-baldintzetan erabiltzeko eta horiez gozatzeko, herritartasun osoari dagokien eskubideak bermatze aldera. Hitz batez, norberaren askatasun indibidual eta kolektiboaren garapena bermatzea.

Emakume askok aurrerapenak lortu dituzte, banaka egindako ahalegin tematikaren bidez; bai eta mugimendu feministek eta beste erakunde batzuek egindako lanaren bidez ere, espazio publikoak eta pribatuak gizonen eta emakumeen artean banatzeko dikotomia gainditzeko helburuarekin. Hala ere, bi aldeen arteko desberdintasuna agerikoa da oraindik, batzuek eta besteek bizitza publikoan parte hartzeko izan dezaketen erabileran, bai eta gure hirietako eta herrietako kaleez gozatzeko eta haiez jabetzeko orduan ere.

Berdintasunezko erabilera hori murrizten duten mekanismo anitzen artean, sexu-indarkerian jarri nahi dugu fokua; izan ere, mundu osoko emakumeak eta neskatilak espazio publikoan sufritzen ari dira.

El acoso sexual y otras formas de violencia sexual contra las mujeres en espacios públicos.

Este 25 de noviembre queremos reivindicar el derecho de las mujeres al uso y al disfrute del espacio público en condiciones de igualdad como garantía del ejercicio de sus derechos de ciudadanía plena y, en definitiva, como garantía del desarrollo de su propia libertad, individual y colectiva.

Se han logrado avances mediante el esfuerzo tenaz de muchas mujeres de manera individual, así como de los movimientos feministas y de otras organizaciones, para la superación de la dicotomía del reparto de los espacios públicos y privados entre hombres y mujeres. Sin embargo, aún existen enormes diferencias en el uso que unas y otros pueden hacer de su participación en la vida pública, del disfrute y de la apropiación de las calles de nuestras ciudades y de nuestros pueblos.

Entre los múltiples mecanismos que restringen este uso igualitario, queremos poner el foco en la violencia sexual que las mujeres y niñas de todo el mundo vienen sufriendo en el espacio público.



Emakumeen eta nesken aurkako sexu-indarkeria, indarkeria matxista normalizatuaren testuinguruan, helburu argia du, funtzio sozial zehatz bat: emakumeak kontrolatzea eta haien askatasuna murriztea, hain zuzen ere. Zehazki, jai- eta aisialdi-testuinguruetan gertatzen den sexu-indarkeriak emakumeen sexualitatea kontrolatzeko funtzio hori betetzen du. Era berean, haien nahia, gorputza, mugikortasuna, espazio publikoko okupazioa, gizarte-harremanak eta berdintasun baldintzetan gozatzeko eskubideak kontrolatzea ere.

Beraz, euskal politika publikoen eta administrazioen betebeharra eta helburua da eskura dituen estrategia eta mekanismo guztiak sustatzea, emakumeek eta neskek beren herritartasun osoa gauzatu ahal izateko gure hiri eta herrietako espazio fisikoan, eta horiek erabiltzea, berdintasun-baldintzak bermatuta.

Kontuan izan behar dugu erreklamaturako eskubidea ez dela segurtasunera mugatzen, baizik eta espazio batean bizitzeko sarbidera eta askatasunera zabaltzen dela; sozializatzeko, bere egiteko eta eraldatzeko, emakumeen eta

La violencia sexual ejercida contra las mujeres y las niñas dentro del contexto de la violencia machista normalizada tiene un objetivo claro, una función social definida, la de controlar a las mujeres y reducir su libertad. En concreto, la violencia sexual ejercida en los contextos festivos y de ocio cumple esta función de control de la sexualidad de las mujeres, así como de la libre expresión de su deseo, de su cuerpo, de la movilidad, de la ocupación del espacio público, de las relaciones sociales y de su derecho al disfrute en términos de igualdad.

Por lo tanto, es una obligación y un objetivo de las políticas públicas y de las administraciones vascas, promover todas las estrategias y mecanismos a su alcance para garantizar que las mujeres y las niñas puedan ejercer su ciudadanía plena en el espacio físico de nuestras ciudades y pueblos y puedan hacer uso del mismo en condiciones de igualdad.

Debemos tener en cuenta que el ejercicio del derecho reclamado no se reduce a la seguridad, sino que se extiende al acceso y libertad para habitar un espacio y socializar, para apropiárselo y para transformarlo de acuerdo con los



nesken interesen, nahien eta beharren arabera.

Toki-administrazioei dagokie, beren politika publikoen eta hiri-plangintzaren bidez, espazio publikoak emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko leku lagunkoi bihurtzea.

Nazio Batuen Erakundearen ekimenak, «*Hiri seguruak eta espazio publiko seguruak*», espazio publiko seguruak eta ahaluntzaileak sustatzen du emakumeentzat eta neskentzat, sexu-jazarpenik eta bestelako sexu-indarkeriarik gabe, berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzen aldeko Herri-tunaren ildotik.

Esparru horretan, Eibarko Udalak bere gain hartzen ditu konpromiso hauek:

- 1.- Era sakonean ezagutzea emakumeei espazio publikoa ukatzeko modu anitzak, tokiko politiken diseinuan eta garapenean kontuan hartzeko.
- 2.- Lege eta politika integralen ezarpen eraginkorra bultzatzea, espazio publikoetan sexu-indarkeriari aurrea hartzeko eta

intereses, deseos y necesidades de las mujeres y niñas.

A las administraciones locales, a través de sus políticas públicas y del planeamiento urbano, les corresponde transformar los espacios públicos en lugares amigables y libres de violencia contra las mujeres.

La iniciativa mundial de ONU Mujeres “*Ciudades Seguras y Espacios Públicos Seguros*” promueve la creación de espacios públicos seguros y empoderantes para mujeres y niñas, libres de acoso sexual y de otras formas de violencia sexual, en línea también con el Pacto de País por la igualdad y vidas libres de violencia contra las mujeres.

En este marco, el Ayuntamiento de Eibar asume los siguientes compromisos:

- 1.- Conocer en profundidad las múltiples formas de negación del espacio público a las mujeres para tenerlas en cuenta en el diseño y desarrollo de las políticas locales.
- 2.- Impulsar la implementación efectiva de las leyes y políticas integrales para preve-



erantzuteko. Eta, era berean, gaitasunak, sentsibilizazioa, komunitate-mobilizazioa eta beste estrategia batzuk garatzea.

3.- Aldaketak bultzatzea jarreretan eta portaeretan, emakumeek eta neskatok indarkeriarik gabeko espazioez gozatzeko dituzten eskubideak bermatze aldera. Hori gauzatzeko, errespetuzko genero-harremanak, genero-berdintasuna eta segurtasuna sustatzea espazio publikoetan.

4.- Inbertsioak sustatzea, espazio publikoetan hautemandako segurtasun errealari dagokionez; genero-ikuspegia ziurtatzea hiri-plangintzan, emakumeen beharriak kontuan har daitezten.

5.- Berdinsarea tokiko jardunbide sare gisa indartzea, ekimenei eta jardunbide egokiei buruzko ezagutza-trukea errazteko. Eta hiri eta herri seguru eta inklusiboak lortzeko, emakumeentzat eta neskentzat.

6.- Beste erakunde eta administrazio batzuekin lankidetzan aritzea, Emakunde eta foru-aldundiekin besteak beste; gizartetaldeekin, feministekin, ere, emakumeek eta neskek aukera izan dezaten espazio publikoaz segurtasunez eta berdintasunez gozatzeko.

nir y responder a la violencia sexual en espacios públicos, a través del desarrollo de capacidades, sensibilización, movilización comunitaria y otras estrategias.

3.- Impulsar cambios en las actitudes y comportamientos para garantizar los derechos de las mujeres y las niñas a disfrutar de espacios libres de violencia promoviendo relaciones de género respetuosas, la igualdad de género y la seguridad en los espacios públicos.

4.- Promover inversiones en seguridad real y percibida en los espacios públicos asegurando el enfoque de género en la planificación urbana para que se tengan en cuenta las necesidades de las mujeres.

5.- Reforzar Berdinsarea como la red de buenas prácticas locales para facilitar el intercambio de conocimiento sobre iniciativas y buenas prácticas para conseguir ciudades y pueblos seguros e inclusivos para y con las mujeres y las niñas.

6.- Colaborar con otras instituciones y administraciones, Emakunde y diputaciones forales entre otras, así como con el tejido social, feminista, para que mujeres y niñas puedan disfrutar del espacio público con seguridad y en igualdad.



Udal Batzarra jakinaren gainean geratuda.

El Pleno se da por enterado.

4. ERAKUNDE-ADIERAZPENA UDALLEAN ETA UDALERRIAN EUSKARALDIAREN HIRUGARREN EDIZIOA SUSTATZEKO

Euskal Herri osoko ehunka herritako milaka lagunek parte hartu zuten 2018ko eta 2020ko Euskaraldiaren lehenengo bi edizioetan, erakunde publikoen zein gizarte eragileen bultzadaz.

Eibarren ere 3.000 herritarretik gora izan dira edizio horietan "Ahobizi" edo "Belarriprest" gisa parte hartu dutenak, eta 80 entitate baino gehiagotan eratu dira 350 "Arigune".

Lehenengo eta bigarren edizioen balorazio positiboa egin zen, bai parte-hartzearen aldetik, eta baita ekimenak erabileran izan duen eraginarekin aldetik ere. Une honetan, bete-betean gaude Euskaraldiaren hirugarren edizioa antolatzeke lanetan.

4. DECLARACIÓN INSTITUCIONAL PARA EL IMPULSO DE LA TERCERA EDICIÓN DEL EUSKARALDIA EN EL AYUNTAMIENTO Y EL MUNICIPIO

Fueron las y los ciudadanos de cientos de localidades de Euskal Herria quienes participaron en las dos primeras ediciones, 2018 y 2020, del Euskaraldia, con el impulso de las instituciones públicas y los agentes sociales.

En Eibar también han sido más de 3.000 las y los ciudadanos que han participado en estas ediciones como "Ahobizi" o "Belarriprest" y se han constituido 350 "Arigunes" en más de 80 entidades.

La valoración realizada en las anteriores ediciones ha sido positiva, tanto en cuanto a participación como en cuanto a la incidencia que tuvo esta iniciativa en el uso del euskera. En este momento, se encuentran en marcha las tareas de organización de la tercera edición del Euskaraldia.



“Hitzez ekiteko garaia” du leloa hirugarren edizioak. Aurreko bi edizioetan moduan, herritarren hizkuntza-ohituretan eragitea eta euskarren erabilera gehitzea izango da helburu nagusia.

Bigarren edizioan bezala, oraingoan ere, entitateek era aktiboan parte hartuko dute ariketan. Hori dela eta, entitateetan euskaraz lasai jarduteko “Ariguneak” sortzea izango da entitateon zeregin nagusia.

Eibarren AKEBAIk, dagoeneko, osatua du Euskaraldia taldea, eta lanean dihardute Eibarren ekimena herriko entitateetan eta herritarren artean zabaltzeko.

Horregatik guztiagatik, honako hau adierazten dugu:

ERAKUNDE ADIERAZPENA

- Eibarko Udaltzako bat egiten du, 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra, Euskal Herri osoan zehar bideratuko den Euskaraldiarekin, eta ekimenaren sustatzaile izango da Eibarren AKE-

El lema de esta edición es “Hitzez ekiteko garaia”, gehiagotan”. Al igual que en las dos ediciones anteriores, el objetivo principal será incidir en los hábitos lingüísticos de la ciudadanía e incrementar el uso del euskera.

Al igual que en la segunda edición, las entidades participarán activamente en el ejercicio. Por ello, la labor principal de las entidades será la creación de “Arigunes”, espacios protegidos para el uso del euskera.

En Eibar, ya está en marcha Eibarren EKEBAI, grupo motor del Euskaraldia, así como, la red de personas que presentará la iniciativa a la ciudadanía y a las entidades locales.

Por todo ello, realizamos la siguiente

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

- El Pleno del Ayuntamiento de Eibar, junto con Eibarren AKEBAI, se adhiere al Euskaraldia que se va a desarrollar a lo largo de todo Euskal Herria, del 18 de noviembre al 2 de diciembre de 2022. Por tanto, adquiere el compromiso de actuar con responsabilidad y ejemplaridad.



BAIrekin batera. Horrenbestez, erantzukizunez eta eredugarritasunez jokatzeke konpromisoa hartzen du.

- Eibarko Udalak, entitate gisa, Euskaraldian izena emango du, horretarako beharrezko ariguneak identifikatuz eta bultzatuz, eta Udalbatza bera ere “arigune” gisa identifikatuz.
- Udalkide, herritar eta herriko eragileei dei egiten die parte har dezaten eta, “Ahobizi” eta “Belarriprest” izan daitezen eta “Ariguneetan” parte har dezaten.
- Ordezkaritza politikoen egiteko nagusia izango da Euskaraldiaren esparruaren baitan, eta bereziki, Udalean eta Udalaren ardurapeko entitateetan ekimena zabaltzea. Horrenbestez, ekimen honetan ahalik eta “Arigune” gehien, eta “Ahobizi” eta “Belarriprest” gehien aktibatzeke urratsak emango dituzte, arduradun politikoak izan nahiz langileak izan.
- El Ayuntamiento de Eibar, a modo de entidad, se inscribirá en el Euskaraldia, identificando e impulsando los “Ariguneak” que sean precisos para ello, e identificando a la propia Corporación como “arigune”.
- Realiza un llamamiento a las y los componentes del Ayuntamiento, a la ciudadanía y a las y los agentes locales para que participen y se identifiquen con los roles de “Ahobizi” y “Belarriprest”, con el fin de que puedan participar en los “Arigunes”.
- La tarea principal de las y los representantes políticos será la de difundir la iniciativa que se va a desarrollar dentro del marco del Euskaraldia, en el Ayuntamiento y en sus entidades autónomas. Por ello, va a dar los pasos necesarios para activar el mayor número posible de “Arigunes”, “Ahobizi” y “Belarriprest” entre las y los responsables políticos y trabajadores.



- Eibarko Udalak neurriak hartuko ditu hizkuntza-praktika horiek posible izateko eta praktika horiei etorkizunean eutsi ahal izateko.

- El Ayuntamiento de Eibar adoptará medidas para posibilitar esas prácticas lingüísticas y para poder seguir manteniendo dichas prácticas en el tiempo.

Udal Batzarra jakinaren gainean geratuda.

El Pleno se da por enterado.

5. Josu Mendicute Rodríguez jaunak erabateko dedikazioko erregimenari uko egitea.

5. Renuncia al régimen de dedicación exclusiva de D. Josu Mendicute Rodríguez.

Josu Mendicute Rodríguez zinegotziak uko egin dio erabateko dedikazioko erregimenari 2022ko urriaren 26tik aurrera.

El Concejal Don Josu Mendicute Rodríguez ha renunciado con efectos de 26 de octubre de 2022 al régimen de dedicación exclusiva.

Udal Batzarra jakinaren gainean geratuda.

El Pleno se da por enterado.

6. Eremu publikoa mahai eta aulkiekin, salgaiekin edo bestelako elementu osagarriekin okupatzeko udal Ordenantzaren aldaketari hasierako onespemate.

6. Aprobación Inicial de la modificación de la ordenanza municipal sobre el uso y ocupación de la vía pública con mesas y sillas, productos en venta u otros elementos auxiliares.

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.



ALDEKO BOTOAK: 14 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (6).

KONTRAKO BOTOAK: Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

ABSTENTZIOAK: 5 - EH Bildu.

Eremu publikoa mahai, aulki eta bestelako elementuekin okupatzeko arauak ematen dituen egungo Ordenantza 2012an onetsi zen eta 2016. urtean hainbat aldaketa egin zitzaizkion.

COVID 19ren osasun-krisia zela eta 2020tik aurrera hartutako neurriek eragina izan zuten azken bi urteetan ostalaritza-establezimenduen terrazak okupatzeko moduan.

Krisi horretara egokitzeko, terrazak jartzeari eta okupa zitzaketen tokiei buruzko larrialdi-neurriak hartu ziren.

Krisia igaro ondoren, kontsideratu da neurri horietako batzuk indarrean dagoen Ordenantza arauemailean sartu behar zirela, hala nola, terrazak jartzeko aparkatzeko tokiak okupatzeko aukera ematea eta horretarako irizpideak ezartzea.

VOTOS A FAVOR: 14 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (6).

VOTOS EN CONTRA: Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

ABSTENCIONES: 5 - EH Bildu (5).

La actual Ordenanza reguladora de la ocupación de la vía pública con mesas, sillas y otros elementos se aprobó en 2012 y fue modificada en varios aspectos en 2016.

Las medidas adoptadas a partir del año 2020 con ocasión de la crisis sanitaria del COVID 19 repercutieron en la disposición de la ocupación de las terrazas de los establecimientos hosteleros durante los dos últimos años.

Para adaptarse a esta crisis se adoptaron medidas de emergencia relativas a la disposición de las terrazas y a los lugares que podían ocupar.

Una vez remitida la crisis se ha considerado que debía incorporarse a la Ordenanza reguladora en vigor alguna de esas medidas como, por ejemplo, la relativa a la posibilidad de ocupación de plazas de estacionamiento para la instalación de terrazas y los criterios para ello.



Testuaren eguneraketaren bat egiteko ere aprobetxatzen da.

Hizkuntza-irizpideak ere sartu dira.

Beraz, beharrezkoa da Ordenantzaren edukia eguneratzea, eta, horretarako prestatu da artikulu batzuk aldatzeko proposamena. Proposamenak 3., 4., 11. eta 16. artikuluei eragiten die, eta xedapen iragankor bat gehitu da.

Toki-korporazioek beren administratuen jardueran duten esku-hartzea, bestek beste, Ordenantzen bidez gauzatzen da, izaera orokorrez indarrean jarri behar diren xedapenak direnean.

Aldatu beharreko Ordenantza Toki Araubidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legean eta Administrazio Publikoen Ondarea arautzen duen araudian —batez ere 33/2003 Legean— oinarritzen da, herriko espazio publikoekz baliatzeko edo haien erabilera arautzeko orduan.

Espazio publikoen irisgarritasuna bermatzeko betekizunei dagokienez, hiri-inguru-
neen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak dakartzan Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak arautzen

Se aprovecha también para realizar alguna actualización del texto.

Se incluyen también criterios lingüísticos.

Por tanto resulta necesario actualizar el contenido de la Ordenanza y para ello se ha preparado la propuesta de modificación de varios de sus artículos con dicha finalidad.

La intervención de las Corporaciones locales en la actividad de sus administrados se ejerce entre otros medios, a través de Ordenanzas, cuando se trate de disposiciones que deban regir con carácter general.

La Ordenanza objeto de modificación se basa, en la Ley 7/1985, de Bases del Régimen Local y en la normativa reguladora del Patrimonio de las Administraciones Públicas, constituida principalmente por la Ley 33/2003, en cuanto a la regulación de los diferentes usos o utilidades del espacio público de la ciudad.

En cuanto a los requisitos para garantizar la accesibilidad de los espacios públicos se regula en el Decreto del Gobierno Vasco 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entor-



ditu; baita otsailaren 1eko VIV/561/2010 Ministerio Aginduak ere, espazio publiko urbanizatueta sartzeko eta haiek erabilizteko irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarritzko baldintzen dokumentu teknikoa garatzen duenak.

Hizkuntza-irizpideak sartzea Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren 35. artikuluan dago jasota, era berean, Euskadiko toki-erakundeetarako buruzko 2/2016 legea garatzen duena.

Prozedurari dagokionez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 130. artikulua exijitzen du indarrean dauden arauak aldi berean berrikustea, erregulazio onaren printzipioetara egokitzeko eta egiaztatzeke ea indarreko arauak zein neurritan lortu dituzten aurreikusitako helburuak eta ea justifikatuta eta egoki zenbatetsita zeuden haietan ezarritako kostuak eta kargak.

nos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación y en la Orden ministerial VIV/561/2010, de 1 de febrero, por la que se desarrolla el documento técnico de condiciones básicas de accesibilidad y no discriminación para el acceso y utilización de los espacios públicos urbanizados.

La introducción de criterios lingüísticos se recoge en el artículo 35 del Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi, que a su vez desarrolla la ley 2/2016 de instituciones locales de Euskadi.

En cuanto al procedimiento, el artículo 130 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, exige revisar periódicamente las normas vigentes para adaptarlas a los principios de buena regulación y para comprobar la medida en que las normas en vigor han conseguido los objetivos previstos y si estaba justificado y correctamente cuantificado el coste y las cargas impuestas en ellas.



Udal Ordenantzak aldatzeko haiek onartzeko ezarri zen prozedura berbera erabili behar da, Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 56. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2022ko uztailaren 5eko ediktuaren bidez, hogeit eguneko epean aurretiazko kontsulta publikoan jarri zen udal Ordenantza hori aldatzeko asmoa, Udalaren webgunean argitaratuta. Ez zen inolako ekarpenik jaso.

Herri Administrazioen Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeak ezartzen du, araua idatzi aurretik kontsulta egin ahalizatea galarazi gabe, arauak pertsonen eskubide eta interes legitimoei eragiten die-nean, zuzendaritza-zentro eskudunak dagokion web-atarian argitaratuko duela testua, eragindako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona edo erakunde batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak eskatzeko.

Udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen udal Ordenantza aldatzeko proiektuaren testua Udalaren web atarian argitaratu da, 15 egunez, adierazitako helburuarekin.

Para la modificación de las Ordenanzas municipales debe seguirse el mismo procedimiento que para su aprobación, en virtud de lo previsto en el artículo 56 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes en materia de Régimen Local.

Por edicto de 5 de julio de 2022 se sometió a consulta pública previa por plazo de veinte días la intención de modificar dicha Ordenanza municipal, mediante publicación en la web municipal. No se recibió ninguna aportación.

La Ley 39/2015 de procedimiento común de las Administraciones Públicas establece que sin perjuicio de la consulta previa a la redacción del texto de la iniciativa, cuando la norma afecte a los derechos e intereses legítimos de las personas, el centro directivo competente publicará el texto en el portal web correspondiente, con el objeto de dar audiencia a los ciudadanos afectados y recabar cuantas aportaciones adicionales puedan hacerse por otras personas o entidades.

Se ha publicado el texto del proyecto de modificación de la Ordenanza municipal en el portal web municipal por 15 días con el objeto indicado. Dicho plazo finalizó el



Epe hori irailaren 22an amaitu zen eta orduan ere ez zen nolako ekarpenik egin.

Aurretiazko kontsultaren eta entzunaldia-
ren faseak amaitu ondoren, Toki Araubide-
aren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Le-
gearen 49. artikuluan araututako proze-
dura aplikatuko da:

Ondorioz, kontuan hartuta 2022ko urriaren
25eko Pertsonaleko Lan Batzordearen al-
deko irizpena.

Osoko Bilkurak honako erabaki hau hartu
du:

ERABAKIA

LEHENA: Hasierako onespina ematea
eremu publikoa mahai eta aulkiekin, sal-
gaiekin edo bestelako elementu osagarri-
ekin okupatzeko udal Ordenantzaren alda-
ketari. Aldaketak 3.,4.,11. eta 16. artiku-
luei eta xedapen iragankorrari eragiten
die. Hona hemen:

22 de septiembre y tampoco se presentó
ninguna aportación.

Una vez finalizadas las fases de consulta
previa y audiencia se aplicará el procedi-
miento regulado en el artículo 49 de la Ley
7/1985 de bases de régimen local.

En consecuencia, considerando el dicta-
men favorable Comisión de Trabajo de Per-
sonal en sesión celebrada el día 25 de oc-
tubre de 2022

El Pleno de la Corporación, adopta el si-
guiente:

ACUERDO

PRIMERO: Aprobar inicialmente la Modifi-
cación de la Ordenanza municipal regula-
dora sobre el uso y ocupación de la vía pú-
blica con mesas y sillas, productos en
venta u otros elementos auxiliares en los
siguientes términos:



ALDATZEA 3, 4 eta 11. artikulua, eta baita xedapen iragankorra gehitu ere. Honela idatzita geratuko lirateke:

3. artikulua.- Baimenak

Bide publikoa ordenantza honetan erregulatutako elementuekin okupatzeak jabari publikoko ondasunen aprobetxamendu berezi eta pribatiboa dakarrenez, aurretiazko baimena behar da, dagokion udal baimena lortuz. Mendekotasun hau bide-segurtasunarekin eta ordena publikoarekin, oinezkoak pasatzearekin eta desgaitasuna duten pertsonen oinarrizko irisgarritasun-baldintzekin erlazionatutako interes orokorreko arrazoietan justifikatzen da, baita ibilgailu-sarbidean, hiriko ingurumenean eta espazio publiko urbanizatuen apainduraren ere.

Instalazioa erantsita duen establezimendua irekitzeko baimenaren titularrak diren pertsona fisiko zein juridikoei bakarrik emango zaie baimena edo lizentzia.

Baimenaren dokumentua eta bere xehetasun-planoa, edo horien fotokopia bana, jardueraren tokian egon beharko dira, eskatzen dituzten agintzaritzako agenteen esku.

Aurretiko eskubiderik eza. Jabari publikoko ondasunen besterenezintasunari eta preskribaezintasunari buruzko oharrekin bat, okupazioa baimendu ahal izateko beharrezkoak diren baldintzak batera betetze hutsak ez du inolako eskubiderik ematen lizentzia lortzeari

MODIFICAR los artículos 3,4,11, , así como añadir una disposición transitoria que quedarían redactados de la siguiente manera:

Artículo 3.- Autorizaciones

La ocupación de la vía pública con los elementos regulados en esta ordenanza supone un aprovechamiento especial y privativo de bienes de dominio público por lo que está sujeto a previa autorización, mediante la obtención de la correspondiente licencia municipal. Este sometimiento se justifica en razones de interés general relacionadas con la seguridad vial y el orden público, el tránsito peatonal y la garantía de las condiciones básicas de accesibilidad de las personas con discapacidad, el acceso rodado de vehículos, el medio ambiente urbano y el ornato de los espacios públicos urbanizados.

La licencia sólo se otorgará a las personas físicas o jurídicas titulares de la licencia de apertura del establecimiento al que está aneja la instalación.

El documento de la licencia y su plano de detalle, o una fotocopia de los mismos, deberán encontrarse en el lugar de la actividad, a disposición de los agentes de la autoridad que la reclamen.

Carencia de derecho preexistente. En virtud de las notas de inalienabilidad e imprescriptibilidad de los bienes de dominio público, la mera concurrencia de los requisitos necesarios para que la ocupación pueda ser autorizada no otorga derecho alguno a la obten-



dagokionez. Udalak, baldintza erreal eta aurreikusgarri guztiak kontuan hartuz, askatasun osoa izango du lizentzia emateko edo ukatzeko, eta interes orokorra interes partikularren gaineretik ezarriko du.

Inolako okupaziorik gabe utzi ahal izango dira oinezko asko ibiltzen direlako Tokiko Gobernu Batzarrak jende-pilaketa handiko tartetzat hartzen dituen lekuak. Halaber, aldi baterako bertan behera utzi ahal izango da lizentzia bidez baimenduta dagoen bide publikoa okupatzeko aukera, jai-ospakizunak, kirol-ekitaldiak edo beste mota bateko gertaerak direla medio, alkatetzaren dekretu bidez.

Okupatutako eremuan jendearen eskuera eta bistan jartzen diren testu idatzi guztiak behintzat euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira. Testu horiek hizkuntza bat baino gehiagotan jartzen badira, euskarari lehentasuna emango zaio

4. artikulua.- Kokapena

Ostalaritzako establezimenduetako terrazak eremu publikoaren honako elementu hauetan jarri ahalko dira:

- espaloietan
- oinezkoen esparruetan
- aparkalekuetan

4.1) Espaloiak

Ez da utziko mahairik jartzen 3 metrotik beherako zabalera duten espaloietan edo oi-

ción de la licencia. El Ayuntamiento, considerando todas las circunstancias reales o previsibles, tendrá la plena libertad para conceder o denegar la licencia, haciendo prevalecer el interés general sobre el particular.

Podrán ser excluidos de ocupación alguna aquellos espacios que, por su intensidad de tránsito peatonal, sean declarados Tramos congestionados por la Junta de Gobierno Local. También se podrán suspender temporalmente la posibilidad de ocupación de la vía pública autorizada mediante licencia, por causa de eventos festivos, deportivos o de otra índole, mediante Decreto de alcaldía.

Todo tipo de texto escrito que se coloque a la vista en los elementos regulados en esta ordenanza estará al menos en euskara o en euskara y castellano. Si ese texto se pone en más de una lengua, se le dará prioridad al euskara.

Artículo 4 Ubicación

Las terrazas de establecimientos hosteleros podrán instalarse en los siguientes elementos de la vía pública :

- aceras
- zonas peatonales
- zonas de estacionamiento

4.1) Aceras

Podrá autorizarse la instalación de terrazas en aceras cuando permitan un paso peatonal libre mínimo de anchura mayor



nezkoen ibilbideetan. Oinezkoen gutxieneko pasabide libreak, edozein kasutan ere, metro 2,00 edo hortik gorako zabalera izango du. Pasabideak pertsonen biraketa, gurutzaketa eta noranzko-aldaketa bermatu behar ditu, haien ezaugarriak edo desplazatzeko modua alde batera utzita.

Salbuespen gisa gutxieneko pasoa 1,50 m-ra murriztu ahal izango da apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren araudiak aurreikusitako kasu honetan: 12 etxebizitza/hektareako dentsitatea edo txikiagoa duten etxebizitzien urbanizazioetan.

Instalazioak inolaz ere ezin du hartu espaloiak duen zabalaren % 50etik gorako lekurik.

Espaloietan jartzen direnean, terraza espaloien zintarriaren lerroan jarriko da.

4.2 Oinezkoentzako esparruak

Terrazak oinezkoentzako eremuetan jartzen direnean, altzariak gutxienez 3 metro zabal den oztoporik gabeko espazio bat lagatzeko moduan jarriko dira, oinezkoak eta ibilgailu baimenduak eta larrialdietakoak pasatzeko.

Oinezkoentzat aldi baterako egokitzen diren guneetan —normalean asteburuetan—, oinezkoentzako eremuaren neurria trafikora ixten denean bakarrik bada aski, terrazak jartzeko lizentziak leku horiek oinezkoentzat jartzen direnean bakarrik eman ahal izango dira.

o igual que 2,00 metros, que garantice el giro, cruce y cambio de dirección de las personas independientemente de sus características o modo de desplazamiento.

Se podrá reducir el paso mínimo a 1,50m, de forma excepcional, en los casos previstos en la normativa Decreto 68/2000, de 11 de abril: urbanizaciones de viviendas de densidad igual o inferior a 12 viviendas/Hectárea.

Asimismo la superficie ocupada por las terrazas no podrá exceder del 50% de la anchura de la acera.

Cuando se instalen en aceras la terraza se situará en la línea del bordillo de la acera.

4.2 Zonas peatonales

Cuando se instalen en zonas peatonales el mobiliario de las terrazas se colocará de forma que quede un espacio libre de todo obstáculo de, al menos, 3 metros de anchura, para permitir el tránsito peatonal y el paso de vehículos autorizados y de emergencias.

En las zonas en que se realiza la peatonalización temporal, generalmente los fines de semana, si las dimensiones del espacio peatonal sólo fueran suficientes cuando la zona se cierra al tráfico, podrán concederse licencias para la instalación de terrazas sólo en los períodos de peatonalización.



Oinezkoen esparruetan, oinezkoen ibilbide irisgarria bide erditik badoa eta ukipen-zoladura adierazgarria badu, terraza establezimenduaren fatxada ondoan jarri ahal izango da. Kasu berezietan, gunearen eraketa fisikoak berak uzten ez duenean edo jarraibide horiek betetzea komeni ez duenean, Udalak beste ezaugarri batzuk ezar diezazkioke okupazioari

4.3 Aparkalekuak

Aparkalekuetan terrazak jartzeko baimena eman ahal izango zaie ostalaritzako establezimenduei, baldin eta ez badute lekuri 4 mahai edo gehiago jartzeko espaloietan edo oinezkoentzako esparruetan. Ez da inolaz ere baimenduko lehendik dauden terrazak aparkalekuetan handitzea. Baldin eta espaloian edo oinezkoen esparruan 4 mahai baino gutxiagoko terraza bat jartzeko baimena badute, horri uko egin behar dioke aparkalekuan jartzeko baimena eskatzeko.

Segurtasun-arrazoiengatik, aparkalekuetan ezingo da terrazarik jarri honako kasuetan:

- a) 3.5 metroko zabaleratik beherako galtzada duten kaleetan. Zabalera hori izango da beharrezkotzat jotzen den gutxienera terraza baimentzeko.
- c) Beste erabilera batzuetarako aparkalekuetan: garraio publikoaren geltokiak, taxiak, zamalanak, ibiak...

. En zonas peatonales, en el caso de que el itinerario peatonal accesible discurra por el centro de la vía y disponga de pavimento táctil indicador, la terraza podrá ubicarse junto a fachada del establecimiento. En casos especiales, cuando por la propia configuración física del espacio no sea posible, o conveniente seguir estas indicaciones, el Ayuntamiento podrá establecer otras características de la ocupación.

4.3 zonas de estacionamiento

Podrá autorizarse la instalación de terrazas en zonas de estacionamiento a aquellos establecimientos hosteleros que no cuenten con espacio para la instalación en aceras o zonas peatonales de 4 mesas o más. En ningún caso se autorizarán ampliaciones de terrazas existentes sobre espacios de estacionamiento. Si tienen concedida una terraza de menos de 4 mesas en acera o zona peatonal, deberá renunciar a ella para solicitar la instalación en zona de estacionamiento.

Por motivos de seguridad se excluye la posibilidad de ocupación de zonas de estacionamiento con terrazas:

- b) En aquellas calles cuyo ancho de calzada sea inferior a 3.5 metros siendo este el ancho mínimo que se estima necesario para autorizar su instalación.
- d) Zonas de aparcamiento reservadas para otros usos: paradas de transporte público, taxis, carga y descarga, vados...



Okupa daitekeen aparkatze-banda establezimenduaren fatxadari dagokiona baino ez da izango, eta gehienez ere turismo-ibilgailuak aparkatzeko bi plazaren baliokidea izango da, bai lerroan, bai baterian; gehienez 8 metro lerroan eta 4 metro baterian.

Okupazioak establezimenduaren zabalera gainditzen badu, aldameneko lokalaren titularraren baimena eskatu beharko du.

Ezingo da era honetako terrazarik eskatu bakarrik asteburuetan edota denboraldietan erabiltzeko. Ez bada terraza erabiltzen hilabete baino gehiagoan eta tokiak hutsik jarraitzen badu, emandako baimena balio-gabetu egingo da.

Terraza pertsona guztientzat izan beharko da irisgarria; hortaz, egurrezko edo antzeko materialez eginiko oholtza bat jarri beharko da, zoladura irristagaitzekoa eta edozein klima-egoeratarako balio izango duena. Elementuak erraz desmuntatzeko modukoa izan beharko du.

Oholtzaren eta espaloiko zintarriaren arteko elkarguneak erabat arrasean egon beharko du, inolako irtengunerik gabe.

Terrazak behar bezala mugatuta egon beharko du galtzadarekiko eta aldameneko aparkalekuekiko hesi, baranda edo antzeko bat jarritz, gutxienez 1,2 metroko altuera izango duena galtzada-gunetik neur-tuta. Barandak egitura bat izan beharko du eskudelaren azpitik pasatzea eragotziko duena.

Oholtza aparkalekuaren pintura-markak bistan utziz jarri beharko da.

La banda de estacionamiento susceptible de ocupación será exclusivamente la correspondiente a la fachada del establecimiento, equivalente como máximo a dos plazas de estacionamiento de vehículos tipo turismo tanto en línea como en batería, con un máximo de 8 metros en línea y 4 metros en batería.

En el caso de que la ocupación sobrepase el ancho del establecimiento deberá solicitar, en todo caso, la autorización de la persona titular del local colindante.

No se podrá solicitar este tipo de terraza para su uso sólo en fines de semana y/o temporadas. En el caso de que no se hiciera uso de la terraza durante más de 1 mes y permaneciese el espacio vacío se revocará la autorización concedida.

Deberá ser accesible para todas las personas para lo cual se deberá instalar un tarima de madera o material similar con pavimento antideslizante, en toda condición de clima. El elemento deberá ser fácilmente desmontable.

El encuentro entre la tarima y el bordillo de la acera deberá estar totalmente enrasado sin resalto alguno.

La terraza deberá quedar perfectamente delimitada con respecto a la calzada y a la zona de estacionamiento colindante con la instalación de una barrera, barandilla o similar, de altura no inferior a 1,2 metros medidos desde la zona de la calzada. La barandilla deberá contar con una estructura que impida el paso por debajo del pasamanos.

La tarima deberá instalarse dejando vista la pintura vial del estacionamiento.



Lerroko aparkalekuetan 1,20 m-ko material malguko oztopo-zutoin bat instalatu beharko da aparkatzeko gunearen eta oholtzaren artean, oholtzatik 10 cm-ko distantziara.

Udalak baimenean ezarriko ditu instalazioaren baldintza estetikoak. Kale batean lehendik baimendutako oholtza bat baldin badago, ondoren jarriko direnek material eta diseinu berberak izan beharko dituzte.

Oholtzaren euste-sistemak ezin dio kalterik egin galtzadaren zoladurari; ezingo da zurlorik edo antzekorik egin galtzadan.

Oholtzaren instalazioak ez du euri-uren hustubidea eten behar; beraz, galtzadaren gaineko oholtzaren euskarriek azaleko uren hustubidea ahalbidetu beharko dute, bai luzetara, bai zeharka. Oholtzaren gaineko azaleko euri-urak galtzadarantz hustuko dira, ez espaloirantz.

Terrazarako baimendutako espazioan zerbitzu-kutxatila bat badago, jarritako oholtzak bertara sartzeko erregistro bat izan beharko du edo erraz desmuntatzeko modukoa izan beharko da. Establezimenduko titularrak utzi beharko du kutxatila erabiltzen eta haren erregistroa egiten, zerbitzuak hala eskatzen duen guztietan.

Ezingo da jarri ez eguzkitakorik ez galtzada inbaditu dezakeen elementurik.

Baimena eman baino lehen, txosten bat eskatuko zaio Udaltzaingoari trafikoan izan dezakeen eraginari buruz, eta eskatuko da

En los estacionamientos en línea se deberá instalar una pila de material flexible de 1,20 m. entre la zona de estacionamiento y la tarima, a una distancia de 10 cm. respecto de la tarima.

El Ayuntamiento fijará las condiciones estéticas de la instalación en la autorización. En caso de que en una misma calle haya una tarima ya autorizada, los materiales y diseño de las posteriores deberán ser similares.

El sistema de colocación y apoyo de la tarima deberá ser tal que no dañe el pavimento de la misma, no se permitirá la ejecución de agujeros o similar sobre la calzada.

La instalación de la tarima no deberá interrumpir el desagüe de las aguas pluviales por lo que los apoyos de la tarima sobre la calzada deberán permitir el desagüe de las aguas superficiales tanto de forma longitudinal como transversal. Las aguas superficiales de lluvia sobre la tarima deberán ser desaguadas hacia la calzada, no hacia la acera.

En el caso de que en el espacio autorizado para terraza se encuentre una arqueta de servicio, la tarima instalada deberá o bien tener un registro para acceder a la misma o ser fácilmente desmontable. El titular del establecimiento deberá permitir el uso y registro de la arqueta en todo momento que el servicio lo requiera.

No se podrán colocar sombrillas u otros elementos que puedan invadir la calzada.

Previamente a la concesión se solicitará informe de la policía municipal respecto a la afección al tráfico, y se solicitará el de-



500 €-ko berme bat jartzea, terrazaren erabilerari lagatzen zaionean oholtza kenduko dela bermatzeko.

4.4 Baldintza orokorrak

Baimenak establezimenduaren aurrean dagoen lur-zatia okupatzea ahalbidetuko du. Salbuespen gisa, aldameneko establezimenduari dagokion tartea okupatuta egon daiteke. Halako kasuetan, beharrezkoa izango da aldameneko lokalaren titularrak idatziz emandako baimena.

Ez da terrazarik jartzen utziko, baldin eta ibilgailuak zirkulatzeko bideren bat badago ostalaritzako establezimenduaren eta jarri nahi den terraza finkoaren artean. Salbuespen gisa, baimendu liteke baldin eta oinezkoen pasabide segurua bat egongo balitz establezimenduaren sARBIDETIK 20 metro baino gutxiagora, edo oinezkoek lehenetasuna duten koexistentzia-kale bat balitz, eta terrazaren kokapenak gainerako baldintzak beteko balitu. Udaltzaingoaren aldeko txostena egin beharko da trafikoaren eraginari buruz.

Irisgarritasun-araudiarekin bat etorriz, oinezkoaren eskubidea lehenetsiko da; horretarako, saltokietara eta atarietara sartzeko lekuak libre utzita jarriko da terraza, horietatik gutxienez 60 cm aldenduz. Halaber, terrazak luzetara hartzen duen lekuan, 11 metrotik 11 metrora, 1,50 metroko zeharkako pasabide libre bat utzi beharko

pósito de una garantía de 500 € para garantizar la retirada de la tarima cuando se cese en el uso de la terraza.

4.4 condiciones generales

La autorización permitirá la ocupación del tramo de suelo situado ante el propio establecimiento. Excepcionalmente podrá estar ocupado el tramo correspondiente al establecimiento vecino contiguo, En ese caso será necesaria la previa autorización escrita de la persona titular del local contiguo afectado.

No se permitirá la instalación de la terraza si existe una vía con circulación rodada entre el establecimiento de hostelería y la ubicación de terraza propuesta. Como excepción podría autorizarse si existiese un paso peatonal seguro a menos de 20 metros del acceso al establecimiento, o cuando se trate de una calle de coexistencia de preferencia peatonal y la ubicación de la terraza cumpliera con el resto de requisitos. Se deberá emitir informe favorable de la policía municipal respecto a la afección al tráfico.

En concordancia con la normativa de accesibilidad se primará el derecho del peatón, para ello, la colocación se realizará dejando libres las zonas de acceso a comercios y portales, retirándose de los mismos un mínimo de 60 cm. Deberá dejarse asimismo un paso libre transversal de 1,50 metros cada 11 metros de ocupación longitudinal de la terraza, salvo en



da, okupatu beharreko lekua ezaugarriak direla-eta bestelako banaketa bat egitea egokiagoa denean izan ezik.

Edonola ere, zuhaitzak, zuhaitz-txorakoak, parterreak, hiri-altzariak, sarbideak eta oinezkoentzako pasaguneak errespetatuko dira.

Irisgarritasun-araudiak definitzen duen oinezkoentzako ibilbide irisgarria ez da inolaz ere okupatuko edo aldatuko. Okupatutako azalera erraz atzemateko modukoa izan behar da, eta ikusteko desgaitasuna duten pertsonentzat arriskutsua izan daitekeen edozein elementu edo egoera saihestuko da. Instalazio hauetako elementuen diseinuak eta kokapenak pertsona guztiak erabiltzeko modukoak izango dira.

Okupazio-modulu orokorra 1,85 x 1,85 metro karratukoa izango da, beraz, mahai bat eta 4 aulki jartzeko. Espaloi estuetan edo mahai 1 eta 4 aulki jartzeko aukerarik ez dagoen lekuetan, dagoen lekura hobeto egokitze asmoz, baimena emango da barrikak eta aulkiak jartzeko, edo modulu orokorrari aldaketa batzuk egiteko. Beraz, horrelako kasuetan, mahai 1 eta 3 aulkiz osatutako moduluak (1,85 x 1,35 m) edo mahai 1 eta aulki 2koak (1,85 x 0,85 m) jarritzen utziko da.

casos en que las características del espacio a ocupar aconsejen otra distribución.

En cualquier caso se respetarán los árboles, los alcorques, los parterres, el mobiliario urbano y sus accesos y los pasos de peatones.

En ningún caso se invadirá o alterará el itinerario peatonal accesible, según lo define la normativa de accesibilidad. La superficie ocupada deberá ser detectable, evitando cualquier elemento o situación que pueda generar un peligro a las personas con discapacidad visual. El diseño y ubicación de los elementos de estas instalaciones permitirán su uso por parte de todas las personas.

El módulo de ocupación genérico será de 1,85 x 1,85 metros cuadrados correspondiente a 1 mesa y 4 sillas. En el caso de aceras estrechas en las que no es posible la colocación del módulo principal de 1 mesas y 4 sillas, con el fin de adaptarse mejor al espacio disponible, se permitirá la colocación de barriles y taburetes, o bien variaciones del módulo principal; en estos casos, se permitirá la instalación de módulos compuestos por 1 mesa y 3 sillas (1'85 m x 1'35 m) o módulos de 1 mesa y 2 sillas (1'85 m x 0'85 m).



11. artikulua. Altzariak kentzea eta garbitzea.

11.1 Arau orokor gisa, establezimenduaren titularrak mahaiak, aulkiak eta gainerako altzari guztiak egunero kendu beharko ditu; horiek establezimenduaren barruan edo beste lokal batean lagako dira eguna amaitzean eta okupatutako espazioa garbitasun-baldintza ezin hobetan utzi beharko da.

Aulki-pilak, mahaiak, barrikak, eguzkitakoak edo terrazako beste edozein elementu lagun-garri ezingo dira inolaz ere eremu publikoan bildu.

Terrazako altzariak biltegitatzeko behar adina tokirik ez izatea nahikoa arrazoi izan daiteke terraza jartzeko lizentzia ukatzeko edo mugatzeko.

Mahaiak eta aulkiak kendu egin beharko dira kalea edozein jai- edo kirol-ekitaldirako erabili behar bada. Horretarako, Udaltzaingoak horri buruz ematen dituen jarraibideak bete beharko dira, eta Sail horrek egun jakin horietarako ezartzen dituen ordutegiak errespetatu beharko dira.

Instalazio iraunkorrak (terraza egonkorrek edota oholtzak) kendu egin beharko dira, behar publikoa dela-eta beharrezkoa bada, esate baterako, galtzadan obrak egiteagatik edo antzeko kasuengatik.

11.2. Jardueraren titularrek gutxienez egunero birritan garbitu beharko dute terrazak okupatzen duen eremu hori, eta, nolana

Artículo 11. Retirada del mobiliario y limpieza.

11.1 Como norma general, el titular del establecimiento queda obligado a la retirada diaria de las mesas y sillas y todos los elementos del mobiliario, que siempre se retirarán al interior del establecimiento, u otro local, al final de cada jornada, debiendo dejar el espacio ocupado en perfectas condiciones de limpieza.

En ningún caso podrán almacenarse en la vía pública pilas de sillas, mesas, barricas, sombrillas o cualquier otro elemento auxiliar de la terraza.

La inexistencia de un espacio suficiente para almacenar el mobiliario de la terraza podrá ser causa suficiente para la denegación de la licencia de instalación o su limitación.

Tendrán la obligación de retirar las mesas y sillas en caso de que sea necesaria la utilización de la calle para cualquier evento festivo, deportivo, etc., debiendo atenderse a las indicaciones que desde la Policía Municipal se dicten al respecto, y respetando los horarios que desde ese Departamento se les marquen para esos días concretos.

Tendrán la obligación de retirar las instalaciones permanentes (terrazas estables y/o tarimas) en caso de que sea necesario por razones de necesidad pública: para la ejecución de obras en la calzada o supuestos similares.

11.2 Los titulares de la actividad deberán limpiar la zona utilizada por la terraza un mínimo de dos veces al día y, en todo caso,



ere, terraza ixteko ordua iritsi eta hura erretiratu ondoren.
Mahaiek hautsontziak eduki behar dituzte, eta hautsontzi horiek ura eduki behar dute.

una vez retirada la instalación al término de su horario de funcionamiento.
Las mesas deberán contar con ceniceros, y estos deberán contener agua

16. artikulua. Ebazpena

Eskaera Ordenantza honek eskatutako baldintzetan aurkeztuta, eta txosten tekniko eta juridikoa egin ondoren, udal-organo eskudunak ebatziko du legeak ezarritako epearen barnean.

Lizentzia-dokumentuan finkatuko dira instalazioaren eta elementu lagungarrien, okupatu beharreko azaleraren, mahaien eta aulkien kopuruen, indarraldiaren eta beharrezkotzat jotzen diren gainerako berezitasunen baldintzak.

Eskatutako lizentzia ematea egokitzat hartzen ez bada edo eman beharreko baimenak dagoeneko eskatu denarekiko aldaketarik badakar, Udalak entzunaldia emango dio eskatzaileari, egoki iruditzen zaiona alega dezan.

Terrazaren lizentzia emateko, ezinbestekoa izango da establezimendu eskatzaileak ez edukitzea inolako zerga-zorrik Udalarekin.

Lizentzia urte osokoa izango da eta berdin dio eskaera urteko zein hiletan egiten den. Hurrengo jardunaldietarako, besterik gabe berriztatuko da hasierako lizentzia hartan emandako denbora berbererako, aldez aurretik

Artículo 16. Resolución.

Formulada la petición en los términos exigidos en la presente Ordenanza, y previo informe técnico y jurídico, se resolverá por el Órgano Municipal competente en los plazos legalmente establecidos.

En el documento de la licencia se fijarán las condiciones de la instalación y elementos auxiliares, superficie a ocupar, número de mesas y sillas, periodo de vigencia y demás particularidades que se estimen necesarias.

Si no se considerase oportuna la concesión de la licencia solicitada o si la autorización a conceder supusiera una variación con respecto a lo solicitado, el Ayuntamiento dará audiencia al/a la solicitante, a fin de que éste/a pueda alegar lo que estime oportuno.

Para la concesión de la licencia de terraza será condición indispensable que el establecimiento solicitante no mantenga deuda tributaria de ningún tipo con el Ayuntamiento.

La licencia será anual coincidiendo con el año natural, con independencia del mes del año en que se curse la petición, renovándose automáticamente para los ejercicios siguientes por igual período que el



tasa ordaindu dela egiaztatuta. Lizentzia-berritze hori egingo da baldin eta ez bada aldaketarik egiten terrazaren kokapenean eta elementuetan, edo lokalaren titulartasunean; eta, bi aldeetako batek ere, udal administrazioak edo titularrak, ez badu berritzearen kontrako borondatea adierazten baimendutako epea hasi baino hamabost egun lehenago.

Udal Administrazioak lizentzia-berritzearen kontrako asmoa adieraziko du ondoko kasu hauetan:

— Terrazaren funtzionamenduaren ondorioz eragozpen edo kalte larriak daudela ondorioztatzen dituzten prozedurak hasi direnean.

—Lizentziaren baldintzak edo Ordenantza honek ezarritako baldintzak ez direla bete agerian geratu denean.

—Aurreko urteari dagokion tasa ordaindu ez denean.

Terrazak instalatzeko eta ustiatzeko lizentziak establezimenduaren jarduera-lizentziarekin bakarrik eskualdatu ahal izango dira.

Ez da eskualdaketarik baimenduko, baldin eta jabari publikoaren okupazioari dagokion tasa edo establezimenduari ezarritako isunak ez badira ordaindu.

concedido inicialmente, previa comprobación del pago de la tasa. Dicha renovación tendrá lugar si no se produce modificación alguna en la ubicación y en los elementos instalados en la terraza, o en la titularidad del local afectado, y si ninguna de ambas partes, Administración municipal o titular, comunica quince días antes del inicio del período autorizado su voluntad contraria a la renovación.

La Administración municipal manifestará su voluntad contraria a la renovación en los siguientes supuestos:

- Cuando se hayan iniciado procedimientos de los que se desprenda la existencia de graves molestias o perjuicios derivados del funcionamiento de la terraza.

- Cuando se haya apreciado un incumplimiento patente de las condiciones de la licencia o de la presente Ordenanza.

- En los casos de falta de pago de la tasa correspondiente del ejercicio anterior.

Las licencias para la instalación y explotación de terrazas solo serán transmisibles con la licencia de actividad del establecimiento al que están asociadas.

No se autorizará la transmisión si existiese impago de la tasa correspondiente a la ocupación del dominio público o de las multas impuestas, al establecimiento.



Eskualdaketa jakinarazten ez bada, aurreko titularra eta titular berria, biak izango dira gertatzen diren kalteen eta egin daitezkeen arau-hausteen erantzule solidarioak.

Lizentzian udal-zerbitzu publikoek baimendutako gehieneko okupazio-azalera mugatzeko beharrezana ezarri ahal izango da. Mugaketa hori ezin izango da gainditu, eta establezimenduaren titularra izango da hura betetzearen arduraduna.

Testu aldatua

XEDAPEN IRAGANKORRA

Orain arte baimendutako aparkalekuetako terrazak ordenantza honen 4. artikuluan ezarritako baldintzetara egokitu beharko dira. Horretarako, 6 hilabeteko epea izango dute, arau hau indarrean sartzen denetik zenbatzen hasita, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik; kasu horietan, Eibarko Udalak epe luzeagoa baimendu dezake. Ezarritako epean egokitzen ez bada, baimenaren ezeztapena emango da.

BIGARRENA: Espedientea jendaurrean jartzea eta interesdunei hogeita hamar eguneko entzunaldia ematea, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

HIRUGARRENA: Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, erabakia behin betiko onartutzat joko da.

Mientras no se comunique la transmisión, anterior y nuevo titular, serán responsables solidarios de los daños que se produzcan y de las infracciones que se puedan cometer.

En la licencia se podrá establecer la obligación de que los servicios técnicos municipales delimiten la superficie máxima de ocupación autorizada. Dicha delimitación no podrá ser rebasada, siendo responsable de su cumplimiento la persona titular del establecimiento.

Texto modificado

DISPOSICION TRANSITORIA:

Las terrazas en zonas de estacionamiento autorizadas hasta la fecha deberán adaptarse a los requisitos establecidos en el artículo 4 de la presente ordenanza. Dispondrán para ello de un plazo de 6 meses a contar desde la entrada en vigor de esta norma, salvo casos excepcionales debidamente justificados en los que el Ayuntamiento de Eibar podría autorizar un plazo superior. La no adaptación en el plazo establecido determinará la resolución de la autorización.

SEGUNDO: Someter el expediente a información pública y audiencia a los interesados por el plazo de treinta días para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

TERCERO: En el caso de que no se hubiera presentado ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo.



7.- 2022. urterako ordainsariak igotzea.

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 20 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: (0).

Antolaketa eta Pertsonal zuzendari andreak egindako txostena ikusita,

Ondorioz, kontuan hartuta 2022ko urriaren 26KO Pertsonaleko Lan Batzordearen aldeko irizpena.

Osoko Bilkurak honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

7. Incremento de las retribuciones salariales para el año 2022.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADO.

VOTOS A FAVOR: 20 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: (0).

A la vista del informe emitido por la directora de organización y personal,

En consecuencia, considerando el dictamen favorable Comisión de Trabajo de Personal en sesión celebrada el día 26 de octubre de 2022

El Pleno de la Corporación, adopta el siguiente:

ACUERDO



1) Eibarko Udaleko langile funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen 2022. urteko ordainsariak **IGOTZEA** urriaren 18ko 18/2022 Lege-Dekretuaren 23. artikulua ezarritakoaren arabera:

2) Funtzionarioei eta lan-kontratuko langilei %1,5eko igoera aplikatzea, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

3) Atzerapentzat ordaintzea 2022ko urtarrietik urrira bitarteko igoera. Ordainketa 2022ko azarotik 2023ko martxora bitarteko nominetako batean gauzatuko da.

1) **INCREMENTAR** las retribuciones del personal funcionario y laboral del Ayuntamiento de Eibar del año 2022 en base a lo establecido en el artículo 23, del Decreto-Ley 18/2022 de 18 de octubre:

2) Aplicar al personal funcionario y laboral un incremento del 1,5% con efectos a 1 de enero de 2022.

3) Abonar como atrasos el incremento correspondiente a los meses de enero a octubre de 2022. Se materializará el pago en una de las nóminas dentro del período comprendido entre noviembre de 2022 y marzo de 2023.